

## EUSKO JAURLARITZAREN DEIALDIA: DOKTOREGO AURREKO KONTRATATUEN MUGIKORTASUNA (EGONLABUR PROGRAMA)

### **Deialdiaren xedea:**

Laguntzak ematea beka aplikatzen den zentroetan ez beste batzuetan doktorego aurreko egonaldiak egin ditzaten prestakuntza bidean dauden ikertzaileek.

### **Onuradunak:**

Eusko Jaurlaritzak ematen dituen Doktore ez diren Ikertzaileak Prestatzeko Doktoretza-aurreko 2022-2023 programaren onuradun direnek eskatu ahal izango dituzte laguntzak. Laguntza horiek lortu ahal izateko, ezinbestekoa da prestakuntzan ari diren ikertzaileak jardunean egotea eta beka-programa lehenengoz, bigarrenez eta hirugarrenez berrituta izatea.

### **Diru laguntzen ezaugarriak:**

Egonaldiak 2023 urtean egin behar dira.

Laguntzak eska daitezke 4 eta 6 hilabete arteko egonaldi bakarra egin ahal izateko, unibertsitateetan, ikerketa zentroetan edo garapen teknologikoko zentroetan eta I+G+b-ren esparruan diharduten enpresetan, atzerrikoak zein estatukoak izan, betiere aplikazio zentroa ez den udalerrri batean badaude eta egonaldiak bizilekua aldi baterako aldatzea badakar.

### **Eskaerak aurkezteko epea:**

**2023/01/05 - 2023/02/06**

**GARRANTZITSUA:** eskatzaileek aurkeztu beharko dute beren eskaera behar den moduan eta epean.

### **Eskaera aurkezteko era:**

Eusko Jaurlaritzaren Egoitza Elektronikoan <https://www.euskadi.eus/informazioa/laguntzak-doktoretza-aurreko-egonaldiak-egonlabur/web01-a3predoc/eu/> telematikoki eskuragarri egongo den inprimakiaren bitartez baizik ezingo da egin eskabidea. Eskabideari atxikitako dokumentuak harekin batera bidali beharko dira, aplikazio elektronikoaren bitartez.

Aplikaziora ziurtagiri elektronikoaren bidez sartuko da.

Eskabide telematikoa guztiz betetakoan, egoitza elektronikoak onartutako sinadura elektronikoaren sistema bat erabiliz identifikatu beharko da eskatzailea, eta eskabidea erregistratzeko prozesu elektroniko osatu beharko du; alegia, eskabide bat sinadura elektronikoaren bitartez baliozkoa izatekoa, erregistroan jasota geratu behar da. Hori

ziurtatzeko, eskatzaileak dokumentuen erregistro-elektronikoa/aurkezpen-erregistroa eskura dezake, «Ikusi egiaztagiria E/E» aukerarekin. Ez da onartuko erabat modu elektronikoa bete eta erregistratutako eskabiderik.

**GARRANTZITSUA:** eskaera hau aurkezteko **ez** da behar UPV/EHUko Ikerketaren arloko errektoreordearen sinadura.

**Harremanetarako (Eusko Jaurlaritza):**

**945 01 82 95/ [huisibas@euskadi.eus](mailto:huisibas@euskadi.eus)**